

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Banaketari dagokionean, gure banaketa propioa edukiko, hau da, ez dugu inoren laguntzarik edota baliabiderik erabiliko. Hala ere, pazienteak etorri beharko dute gugana, gure enpresa erresidentzia bat delako.

Komunikazioari dagokionean, kanal propioaz baliatuko gara. Gu izango baikara familiekin zuzenean harremanetan jarriko garenak. Horretarako, gurea den korreo bat sortuko dugu familiarekin edozein unetan harremanetan jartzeko, pazientearen progresu zein den azaltzeko edota beraiek dituzten galdera eta zalantzei erantzuna emateko. Era berean, progresuari dagokionean familiei astero jakinaraziko zaie pazientearen egoera txosten baten bitartez. Horretaz gainera, gure zentroa irekita egongo da familiei, guk markatutako ordutegi baten barruan beraiek nahi dutenean etortzeko aukera izan dezaten.

Honez gain, pazienteen egoeraren arabera, zentroko adituen balorazioaren ostean eskumen batzuk edukiko dituzte. Balorazioa positiboa izanez gero, pazienteek data seinalatuetan egun batzuk bertatik irteteko aukera izango dute. Hala ere, kanpoan egongo diren egun horietan beraien jarraipenari buruz jakinarazi beharko gaituzte beraien familiek.